

BANDOA

Itsasertzeko Pasealekutik eta sarbideetatik motordun eta motor gabeko ibilgailuen joan-etorria eta mahai eta aulkien instalazioa arautzekoa

Itsasertzeko Pasealekuak zona hau hartzen du: mendebaldean, Narros jauregi ondoan, N-634 errepidera iristeko eskaileretatik hasi eta ekialdean, Aresti kalean, dunako pasabidera iristeko eskaileretaraino; eta 25 metroko sakonera du. Nagusiki oinezkoentzako zona da: aisialdirako, paseatzeko, etab.

Zoladura berezita dauka. Iparraldean hareharrizko baldosak ditu, eta herriko argien farol-lerrotik etxeetako arkupeetaraino, granitozko baldosak (ikus erantsita doan planoan).

Pasealekuan, halaber, merkataritza eta ostalaritzako establezimenduak daude, bai eta hondartzaren inguruan egiten diren zerbitzuak ere: garbiketa eta mantentze-lanak; toldoak; zaintza, salbamendu eta laguntza, etab.

Aipatutako zerbitzu horiek, beren ardurapeko eginkizunak behar bezala betetzeko, mota desberdinetako ibilgailuak erabili behar dituzte.

Hori horrela, derrigorrez bete beharreko arau argi batzuk ezarri beharra dago, ibilgailuen zirkulazio etengabea galarazteko eta oinezkoak babesteko, paseatzeari, atsedeneri eta aisiari lehenetasuna emanaz. Honela zehaztu dira arauok:

1. Pasealekuaren iparraldean dagoen zona, hareharri-baldosazko zoladura duena, bakarrik oinezkoek erabiltzeko da; eta debekatuta dago motordun eta motor gabeko ibilgailu (bizikletak eta patinete mota guztiak barne) orean joan-etorria.

Halaz ere, hondartzako nahiz pasealekuko garbiketa egiteko erabiltzen diren ibilgailuak, bai eta zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzukoak ere, bertan ibili edo zona zeharkatu ahal izango dute, ezinbestekoa denean, pertsonen joan-etorri normala errespetatu behar izanik.

2. Hornidura-ibilgailuak granitozko zoladura duen aldean ibiliko dira, etxeetako arkupeen aldamenean.
3. Pasealekurako sarbide hauek ezarri dira, banatze eta hornitze-lanetarako:
 - Iger kalea: Muskaria mendebaldetik Torremar ekialderaino.
 - Bañeru kalea: Munoa mendebaldetik Muskaria ekialderaino.
 - Mendilauta kalea: Desertu Txikitik, Borgettoko kantinarako.
 - Orixe kalea: Eremuako kantinarako.
4. Mendilauta, Orixe eta Iger kaleetako sarbideak 10:00etan itxiko dira, eta Bañeru kalekoa 10:30etan.
5. Edari, janari edo bestelako produktuen banatzaileek Itsasertzeko Pasealekuko establezimendu edo lokalei sarbide-langak ixteko ordua baino lehen hornitu beharko diete. Ordu horretatik aurrera itsasertzeko pasealekua ibilgailuentzat itxita egongo da.

Salbuespeneko kasuetan, bidezko baimena lortu eta gero, Udaltzaingoak langa ireki ahal izango du; dena den, ibilgailuek ezin izango dituzte Bañeru, Iger, Mendilauta eta Orixe kaleak gainditu eta hornitze-lanak, bertatik, eskorga bidez egin beharko dituzte.

6. Hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuko ibilgailuak granitozko zoladura duen zonan (farolen ondoan) aparkatu behar dira.
7. Garbiketa zerbitzuak, bai hondartzako garbiketa-arduradunak bai inguruko garbiketa arduradunak, granitozko zonan ibiliko dira.
8. Itsasertzeko pasealekuko garbiketa-zerbitzuek beren lanak A) zonan goizeko 8:00ak baino lehen eta B) zonan 9:00ak baino lehen bukatu beharko dituzte, ezinbesteko kasuetan izan ezik (erantsita doan planoaren arabera).
9. Laguntza, sorospen edo gizabidezko arrazoi puntualak direla bide, beren zerbitzuak zonan egin behar dituzten ibilgailuak Bando honetan jasotako arauak aplikatuzetik salbuetsita daude.
10. Aginduzko udal lizentzia duten ostalaritzako establezimenduek mahai eta aulkiak jarri ahal izango dituzte granitozko zoladura duen zonan, farol-lerrotik arkupe alderantz, lizentzian bertan eta dagokion udal ordenantzan ezarritako baldintzekin bat etorritz.
11. Mahai eta aulkiak jartzeko lanak 8:00etatik aurrera hasi ahal izango dira, eta 5 metroko tarte libre utziko da, arkupetik hondartza alderantz, goizeko 10:00ak arte ibilgailuak ibili ahal izateko.
12. Establezimenduak ixterakoan, barrura sartu behar da beladoreak jartzeko erabiltzen den material guztia, hau da, garbiketa-zerbitzuko makinen lana ez eragozteko zona libre eta garbia gera dadin.
13. Ostalaritzako establezimenduen titularrek aurreko arauak ez-betetzeak, itsasertzeko pasealekuan mahai eta aulkiak jartzeko baimena kentzea ekarriko du berarekin.
14. Ibilgailuek dagozkien debekuak eta mugak ez-betetzea, trafiko eta zirkulazioari buruzko araudi berezian ezarritakoaren arabera zigortuko da.

Zarautzen, 2004ko apirilaren 26an
Alkatea

Sin.: Maite Etxaniz